



PALESTINA GERTUTIK SORIANOREN ESKUTIK

Palestinari buruzko jardunaldien baitan, Lidon Sorianok Palestinaren eguneroko bizitzaren berri eman zuen herenegun. 7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-10-31

VIURTEA 1.547.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eli Eizagirre, Rita Calderon, Miren Zeberio eta Koldo Gorostiaga. I. TERRADILLOS

INTEGRAZIOA HELBURU BALOIAREN INGURUAN

TOLOSA II. Adiskidetasunaren Txapelketa antolatu du Ereite elkarteak abendurako 4



Formosa Singers Taiwango korua atzoko emanaldian; lehen aldiz aritu da herrialde honetako koru bat Tolosan. E. EZBZA

Musika profanoaren eta sakratuaren txanda

TOLOSA Santa Klaran eta Leidor aretoan nazioarteko sei ahots talde entzuteko aukera izango da gaur, Abesbatza Lehiaketaren baitan 3

Kilometroetan lanean aritu zirenei eskerrak emateko, barrikotea antolatu dute

IRURA Udalaren eta ikastolaren eskutik, azaroaren 8an egingo dute herriko frontoian; edaria eta kafea antolatzaileen esku 6

mendi
Lapurdi **irteera**

Askain-Sara
Azaroak 2, igandea

goizeko 8:30ean IBARRAKO PLAZAN
apuntatzeko: ZUBIAURRE, GAZTETXEA eta DENAK

**EUSKAL HERRIAN ZEHAR,
GEUREA IKURRIÑA!**

LALBI
ALTZARIAK

Salako muelleetan aukera zabala
Etorri ZUREA diseinatza



Garzia Goldaraz, 1- HERNANI - Tel. 943 557 154 - Faxa: 943 552 082 - mueblesbalbi@euskalnet.net

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Tristezia sentitu nuen

Larunbat gaueko hamabi eta erdiak aldera Tolosara autoz joan beharra suertatu zitzaidan.

Maxi Eroskiko zubia pasa eta Iurre alderantz nindoala, mutiko nerabe talde bat ikusi nuen antza kirol festa aldetik zetoztenak, eta haietako bi errepide erditikan; nire autoaren abiada gurtzit mantxotu nuen kontuz-kontuz gelditzeraino. Benoba, gaztetxo haiek, batz besteko 16 bat urtekoek, hor hasten dirabaldamenetik nire autoa batera eta bestera mugitzen jostailu gisara «mobi-da, mobida» ziotelarik.

Nik leihatila jaitziz galdetu nien, «zer nahi duzue?» eta korrika aldegin zuten guztiek batera.

Tristezia sentitu nuen eta lasaitzeko idazten det.

Zer egin dugu gaizki? Txikitari zenuen jolas egin beraiekin? Ez diegu errespetua lantzen lagundu? Ez ditugu arduratsu izatea bultzatzen?

Ama bat (Tolosa).

■ **Seme bat.** Agian zuen seme-alabekin gehiegiz jolastu eta esne-mamitan hazi dituzuelako dabilta orain gisa horretan: akaso errespetua izateko, errespetua sartu behar zaie. Ni ez naiz heziketan aditua baina bigunegiak ikusten ditut oraingo gaztetxoak, errespetu zer den ikasteko. Ez det uste errua erabat beraiena denik. Errespetu osoz.

Iragarkiei buruz hausnarketa bat

Bueno, ez dakit hau den atal egokia bainakritika bat egin nahi diot gizar-teari orokorrean. Eguberriak gertuago daude eta hasi dira lehen jostailu iragarkiak. Iragarki hauek gizar-tearen islada izan ohi dira eta

beste behin ere hauxe azaltzen dute: mutilek borroka egin behar dute, mutilek ez dute sentimendurik eta destruktzioa dute helburu. Halaber, moto, kotxe eta bestelakoetan abiaduraz tope ibili behar dute.

Neskek, berriz, etxean geratu behar dute umeekin. Horrengatik panpin arrosak dira beraientzat. Sukalde txikiak eta Chabelen etxeak. Halaber, «guapak» egoteko beharrezko makillaje estutxeak ere badaude haien zatiak.

Umeentzako ondorioak: emakumeak bere fisikoz eta etxea eta umeak txukun izateaz arduratzen den bitartean, gizonezkoak borroka egin behar du, agresibitatea landu behar du.

Ez al da lotsagarria oaindik zentsura ugari bizi dugun gizarte honetan horrelako iragarkiek «bia libre» izatea?

Zer esanik ez helduentzako iragarkiak: perfumek, etxerako garbitzaileak... Iragarki batean emakume batek dio «guztia garbitzen DIT. Zer gehiago eskatu dezaket?». Ondorioa: emakumeak garbitu behar du eta emakumearentzat eginiko produktuak dira. Lurrinetan berriz dena emakumearen edertasunera jotzen dute... Umeak jaiotzen direnetik egiten dira gauzak gaizki: neskak arrosaz, mutilak urdinez, panpinak nesken zatiak, kotxeak mutilek, ... Eta ondoren aurretik esan dudana guztia dago. Eta gero diote oaindik ez garela matxistak. lan asko dago egiteko... Hausnar keta hori egin nahi nuen, besterik ez.

Tolosa.

Foruen etorbidean, arriskua zehrabidean

Foruen etorbidean trafikoaren norabidea aldatu dute. Orain autobu-

sak kalearen erdialdean dagoen zehrabidearen gainean geratzen da. Orduan autobusa geldirik dagoenean, oso arriskutsua geratzen da ez baita batere ikusten batenbat pasatzen den ala ez. Irtenbide bat bilatzea komeni da istripuren bat gertatu aurretik.

Bizilagun bat (Tolosa).

Asteburuan istiluak egon dira Tolosan

Asteburu honetan Tolosan gauen atera nintzen baina nahiko gorputz txarrarekin etxera bueltatu behar

izan nuen, sekulako istiluak sortu zirelako.

Tolosako adingabeen zentroan dauden gazteak ziren tarteko. Lehendabizi taberna baten kanpalean eta gero taberna baten jabearekin ere izan zituzten arazoak.

Egoera iruditzen zait larria dela, batetik, jendeak normala ez den arrazismo zantzuak eman zituelako eta bestetik ez dudalako ulertzen 18 urte azpiko gazteek zer egiten zuten kalean ordu horietan. Nork eman behar dio irtenbidea arazoari? Errezena betikoei errua botatzea, ez?

Jon (Tolosa).

B Blogteka**Eskola Iraunkorren ziertagiria Samaniego Ikastetxearentzat**

Eskolako Ageda 21ek, garapen iraunkorrean hezteko programak, esperientzia onenak gorapatzeko jarri du martxan Eskola Iraunkorren ziertagiria. Samaniego Herri Ikastetxeak garapen iraunkorren bidean azken urteetan egin duen lanarengatik ziertagiri hori lortu du.

Ikastetxeak egin duen lan egokiaren lekuko bandera eta plaka bat jasoko du datorren astelehenean, azaroak 3, Busturiako Mada-riaga Dorretxean burutuko den ekitaldian.

Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego>

Adimen emozionaleko nazioarteko jardunaldia

Hirukiden Adimen emozional eta

soziala garatzeko arduraren hartu duen lantaldea, hilaren 15ean, Donostiako Kursaalaren izan zen. Izan ere, egun horretan, "Bizitza Osoko Ikaskuntza emozionala eta soziala" izeneko nazioarteko jardunaldia ospatu zen. Bertan aurkeztu ziren hezkuntza arloan zein enpresa munduan edo arlo soziokomunitarioan Estatu Batuetan, Ingalaterran, Katalunian... eta Gipuzkoan aurrera eramaten ari garen zenbait esperientzia eta hauen emaitza eta ondorioak.

Jardunaldian Roger Peter Weissberg edo Linda Lantieri espezialistez gain, Daniel Golemanek berak ere (Adimen emozional kontzeptua munduan zehar eza-gutxera eman duen psikologoa) parte hartu zuen eta Gipuzkoan arlo hau nola lantzen ari den ikusita txunditua zegoela errepikatu zuten behin eta berriz.

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

L Laburrak**Alde Zaharrera joateko, Santa Klara kalea irekita**

TOLOSA ● Ur kolektorearen lanak direla-eta besteak beste, Tolosako Santa Klara kaleak aldaketak izan ditu trafikoari dagokionez. Bada, hasierako diptikoan azaltzen ez bazen ere, gaurtik aurrera Santa Klara kalea, Donostiako noranzkoan, Asuncion Klinikara eta Iza-kunera doazenez gain, Alde Zaharrera doazenez ere erabili ahal izango dute, gainontzekoentzat zirkulazioa mugatuta egongo delarik.

Presoen aldeko herri azoka egiteko, material bilketa

TOLOSA ● Eguberrietarako presoen aldeko herri azoka antolatuko dute Tolosan. Hain zuzen, abenduaren 20an kalean izango dira materiala saltzen eta abenduaren 22tik 26ra, berriz, Oargi elkartearen salduko dute materiala. Azoka honetarako erabilgarria den eta borondatez emango den materiala bilteari ekingo diote azaroaren 1etik aurrera, Oargi elkartearen bertan (Santa Maria, 4). Materiala abenduaren 15era bitarte jasoko dute (asteburuetan izan ezik). Antolatuzaileek parte hartzeko deialdia luzatu dute.

Endika Abril Txapelketaren finala, azaroaren 16an

VILLABONA ● Eguraldi txarra dela eta, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak igandean Villabonako Behar Zana elkarteok jokatzeko zuten Endika Abril Txapelketako finala atzeratzea erabaki du. Azaroaren 9an Behobia-Donostia denez, eta lasterketa horrek suposatzen duen guztiarekin, finala azaroaren 16an jokatzeko erabaki du Federazioak. Iparraldeko Luzaz Gazte taldearen aurka ariko dira billabonatarrek partida «zail, ia ezinezko» batean. Oiarzunen izango da norgehiagoka 11:00etan hasita.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

Musika sakratua eta profanoa entzuteko aukera izango da gaur

Kultura » Nazioarteko sei ahots talde entzuteko parada izango da gaur; 16:00etatik aurrera Santa Klaran, eta gero, Leidorren.

ESTI EZEIZA

Musika profanoa eta sakratua entzuteko garaia iritsi da 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan. Denera sei ahots talde ariko dira lehian. Arratsaldean izango dira saio guztiak. 16:00etatik aurrera, Santa Klara elizan izango dira musikasakratuko atalean. 20:00etatik aurrera Leidorren berriz, profanoa entzuteko aukera.

Gentleman singers

- **Jatorria.** Hradec Kralove (Txekia).
- **Zuzendaria.** Richard Uhlir.
- **Ahots taldea.** 9 gizon.
- **Historia.** 2003an sortu zuten Bueni-Pueri txekiar abesbatza ezaguneko ikasle ohiek. Bere abeslariak oso gazteak dira, errepertorio nahiko zabala eta anitza dute, Txekiar errepublikan ez dute parekorik.

Magdalena Vocal Ensemble

- **Jatorria.** San Petersburgo (Errusia).
- **Zuzendaria.** Stonislav Egorov.
- **Ahots taldea.** 4 gizon eta 5 gizon.
- **Historia.** Lehen emanaldia 1999ko Pazkoan eskaini zuten. Errepertorioan Bortnyansky, Tchaikovsky, Tchesnokov eta Rachmaninov bezalako erusiar konpositoreen lan sakratu eta profanoak sartzen dituzte.

Adur Vocal Ensemble

- **Jatorria.** Oslo (Norvegia).

- **Zuzendaria.** Kjetil Almenning.
- **Ahots taldea.** 8 emakume eta 8 gizon.
- **Historia.** Munduko Gazte Abesbatzarekin eta Munduko Ganbara Abesbatzarekin urtetan lankidetzan aritu ondoren, abeslari talde batek noizbehinka elkartzeko proiektu berri bat sortzea erabaki zuten. Taldean 16 herrialde desberdinetako abeslariak daude.

Cantemus Voca Group

- **Jatorria.** Nyiregyhaza (Hungaria).
- **Zuzendaria.** Soma Szabo
- **Ahots taldea.**
- **Historia.** Cantemus Mixed Choir ahots nahasietako parte-hartzaile berak dira. Atzo Leidor antzokian izan ziren denak polifonia eta folklore atalean abesten.

The Antioch Chamber Ensemble

- **Jatorria.** New York (Amerikar Estatu Batuak).
- **Zuzendaria.** Joshua Copeland
- **Ahots taldea.** 6 emakume eta 6 gizon.
- **Historia.** Debuta 1997an egin zuen New Jersey Performing Arts Centerreko irekiera galan, eta New Yorkeko zonalde metropolitanoako ahots talde garrantzitsuenetako bat bezala laster nabarmendu zen.

Exaudi

- **Jatorria.** Habana (Kuba).
- **Zuzendaria.** Maria Felicia Perez.
- **Ahots taldea.** 6 emakume eta 6 gizon.
- **Historia.** 1987an sortu zen abesbatza. Bere errepertorio zabalean XV. mendetik gaur arteko Europa-ko, Hego Ameriketako eta Kubako abesbatza sormen garrantzitsuenak sortzen dira.

«Tolosan irabazten duenak mundu mailan izena lortzen du»

MARIA FELICIA PEREZ » Exaudi abesbatzako zuzendaria

Musika » Aurten, abesbatza lehiaketan parte hartuko duen abesbatza latinoamerikar bakarra da Kubakoa.

E. EZEIZA

Ahots taldeen atalean lehiatuko dira gaur Kubako Exaudi abesbatzakoak. Lehenagotik ere Tolosan izandakoak dira, gainera, azken bitan, 1992koan, irabazle izan ziren. Orain, 12 laguneko satsen dute abesbatza, eta zuzendari lanetan, Maria Felicia Perez ariko da berriro ere.

Zer sentitzen duzue, berriro Tolosan abestean?

Alde batetik, horrenbeste urte eta gero itzultzean poz handia sentitzen dugu, baina bestetik, erantzukizun handia. Hirutan etorri gara eta azkenean Europako Grand Prix-ean lehiatzen. Baina aurrekoetan, ahots nahasi bezala hartu genuen parte, eta oraingoa, ahots talde gisa.

Erantzukizuna aipatzen duzu, oraingoa, aurrekoetan baino handiagoa al da presioa?

Gu hasieratik, 12 abeslariz osatutako taldea izan gara, baina 92 eta 93 urteetarako zortzi abeslari gehiagorekin lan egin behar izan nuen ahots nahasiaren gutxiengo taldera ailegatzeko. Garai haietan ez baitzen existitzen ahots taldeen modalitatea.

Oraingoa, ahots talde gisa etorri zarete. Hemen, maila altuagoa al da?

Nikuste zailagoa dela. Abeslari oso berezituak baitira, eta esperientzia handikoak. Kalitate handia dago ahots taldeetan. Aspaldi ez naiz etorri lehiaketara, baina nik uste horrela dela.

Urte hauetan jarraitu al duzu Tolosako Txapelketa?

Bai, *Kantus* aldizkariaren bitartez



HITZA

jarraitu dut. Baina 1996. urtean etorri nintzen azkenekoz Tolosara. Orduan, epaile lanetan aritu nintzen.

Urteekin maila igo egin al da, edo mantendu?

Ez dakit ziur, aurtengo abesbatzak ez baititut entzun. Baina txapelketaren antolatzaileak kalitatea mantentzen saiatu dira urte hauetan, eta seguruenik jaitsi behintzat ez zen egingo. Egia da, Europako beste lehiaketetaz hau entzun dudala, hau da, kalitatea jaitsi dela, baina Tolosakoaz ez. 40 urte hauetan maila mantentzea lortu du, eta badakigu, Tolosan irabazten duenak mundu mailan izena lortzen duela.

Aurten, lehiaketan parte hartuko duen abesbatza latinoamerikar bakarra zarete. Hori zergatik ote da?

Argentina, Venezuela eta Kolonbia ere abesbatza on asko daude. Baina, gurea izan zen, 1992an, Kubatik etorri zen lehen abesbatza. Hala, gure herrialdean, abesbatza munduan zer egin zen erakusteko aukera izan genuen. Ho-

rregatik, nire ustez, aurten gonbi-datuak izan gara.

Zeintzuk dira Kubatar abesbatzen ezaugarriak?

Gure artean ezberdintasunak daude, nahiz eta ezaugarri komun batzuk izan. Esaterako, guretzat, erritmoa oso garrantzitsua da, eta oso adierazkorrak gara. Guretzat ezinbestekoa da abesbatzaren eta entzulearen arteko komunikazioa.

Kuban, zer nolako egoeran daude abesbatzak? Abesteko ohitura mantentzen al da?

Guk probintzia bakoitzean, abesbatza profesional bat daukagu. Bestalde, musika eskoletan ere koruak dauzkagu eta haurren abesbatza mugimendu bat sortu nahian ari gara. Pixkanaka emaitzak ematen ari da, baina ez da erraza horrelako mugimendu bat eraztea.

Oraingoa honetan, zein da zuen helburua?

Lan handia egiten aritu gara orain arte, baina gaurkoan, lasai aritu nahi dugu. Publikoak saritzea erabakitzen badu, asko poztuko gara.

Arratsaren zantzuak



» Iritzia

Migel Zeberio
Abesbatza zuzendaria

Arabako lautada atzean utzita, Tolosaruntz noala, autotik, zer bait ederra, eta iragankorra be-

hartzeko parada izan dut menturaz. Alde batera San Donato mendiko lerroa behe lainoz estalitako buru gorritua duen herensuge lokartuaren antzeko, bestean berriz Aizkorni eta Aralarko tntorrak, zuritasun negutiarrez, zeruko laino ponposo urreekin jolasean, magaletan noski, baso sugarak, orbelaren biluztasunetik gertu. Horrelakoxea da lehiaketan zehar talde bakoitzak plazaratzen duena; bapatekoa, haize ufada bezain iheskorra: bero, epel edo hotza; geldo-pisu nola fresko eta bortitza.

Beraz antzokiko atea iriki eta haize boladak dakarrenak busti gaitzan utzi diogu. Taldeek beren bora-beheren artetik une goxoak ere eskeini zizkiguten bai eta etortzeokak diren irrika piztu ere.

Entzun ditugun hiru taldeetatik lehenaren helburu pegagogikoak erakarri nau bereziki. Nahiz eta polifonian serio oski agertu zaizkigun, ukitu erromantikozko bi obra behartuak, Sarasolaren Neskatx' Ederra eta Zabalaren Ave Mariari zertzelakada hunki-

garriakatera dizkiete. Tormis autore estoniarrak joan den mendean koru musikari eman zion halako irakurketa eta bultzada original eta herrikoaren zantzuak gogorazi digute.

Sigkronies taldearen doinua helduago eta borobilagoa da, bai eta partaideena ere. Programaren hautuan, ezezagunak zaizkidan zenbait obraen inguruan egin zuten ibilbidea. Polifonian kolore askotariko pintzelkadak dirudite obra desberdinak. Disonantziak eraikitzen ehundura bakoitzari oreka egokia, baretasunaren parekoa zerioten.

Finlandiarren audizio arretatu eginagatik, asperenera bul-

tzatu gaituzte maiz. Kantatu duten aukeraketan eta jardunean zurrungiak iruditu zaizkit. Egia esan, jada gauak estali dituen, arestian aipatutako paraje eder haiek ahaztuzteko modukorik ez da jaso arrats osoan. Nere inguruan zeudenek berriz?

Arreta bereziz jarraitu du hastapen ekitaldia, ondorengo egunetan lehiakide izango diren euskal kantari ezagun zenbaitek. Kantika Koraleko zuzendari den Basilio Astulez jaunak hala zion: «Egitekoak garen kontzertuaren azken xehetasunak zehazten nabil, aurrean titudan taldeen joan etorria ikustearrekin batera».

II. Adiskidetasunaren Txapelketa antolatu du Ereite elkarteak

Gizartea » Etorकिनaren Nazioarteko Egunaren inguruko jardunaldien baitan, abenduaren 2. eta 3. asteburuan izango da.

INIGO TERRADILLOS

Abenduaren 18an Etorकिनaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta Ereite eskualdeko elkarte multikulturalak hirugarren aldiz antolatu ditu jardunaldiak egun horren inguruan. Hainbat ekitaldi osaturiko egitaraua izango da, eta tartean II. Adiskidetasunaren Areto Futbol Txapelketa egingo dute. Lehen aldiz Ereite hartu du ekimen hau antolatzearen ardura, eta Tolosaldea Sahararekin elkartearen laguntza izango du.

II. Adiskidetasunaren Txapelketa abenduaren bigarren eta hirugarren asteburuan jokatu da. Oraindik lekua finkatzeko dute antolatzaileek, hau da, ez dakite Tolosa edo Ibarren izango diren areto futbol partidak. Bertan, herrialde desberdinetako talde osaturiko selekzioak ariko dira, eta Gipuzkoako Areto Futbol Federazioaren araudia hartuko dute kontuan.

Parte hartu nahi duten taldeek dagoeneko aukera dute izena emateko, azaroaren 15era arte, 685 75 05 61 (Miren) telefono zenbakira deituta edo multiculturalereite@yahoo.es helbide elektronikora idatzita. Horretaz gain, Ereite elkarteak Larramendi kalean duen bulegora ere joa daiteke infor-



Tolosaldea Sahararekin elkarteko Eli Eizagirre, Ereite elkarte Rita Calderon eta Miren Zeberio eta antolatze lanetan ari den Koldo Gorostiaga, atzo, Adiskidetasunaren Txapelketaren aurkezpenean. I. TERRADILLOS

mazio gehiago eskatzera, astelehenetan, 17:00etatik 20:00etara.

12 edo 16 taldeko ligaxka

Parte hartuko duten taldeen kopurua 12koa edo 16koa izango da, antolakuntza arrazoiengatik. Beraz, esaterako, 13 talde ematen badute izena, izena eman duten lehen 12ak hartu ahaliko dute parte. Taldeek fiantza moduan 100 euro ordaindu beharko dute, baina diru hori partidak jokatu ostean itzuliko zaie, eta soilik partidetera ez azaltzeagatik galduko dute.

Araudiari dagokionez, selekzio bakoitzak, gehienez, 12 jokalariz izango ditu, eta hauetatik 8 gutxienez jatorrizko herrialdekoak izango dira. Hala, partida bakoitzera gutxienez 8 jokalariz azaldu beharko dira, eta selekzio bakoitzeko delegatua ere bai. Partidek 20 minu-

tuko bi zati izango dituzte, bost minutuko atsedendialdiarekin, eta federaturiko epaileek zuzenduko dituzte. Halaber, antolatzaileek epaimahai tekniko bat osatuko dute, antolatzaile taldeko bi kidez, parte-hartzaileek aurkeztutako bi kidez eta Epaileen Batzordeak jarritako bi kidez osatua; «disziplinara arazoak izanez gero, hauek neurtez» izango da euren zeregina.

Animatzen den ororentzat

Ereiteko eta Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek atzo eginitako aurkezpenan azaldu zutenaren arabera, dagoeneko 11 talde osatu dituzte. «Lurralde guztietako herriarrei dago zuzenduta ekimena, beraz, guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera, giro oso polita izango baita».

Iaz Peña Blaugrana Tolosarrak

» ZENBAIT DATU

- **Ekimena.** Adiskidetasunaren Areto Futbol Txapelketa.
- **Noiz.** Abenduko bigarren eta hirugarren asteburuetan.
- **Izen-ematea.** Azaroaren 15era arte, 685 75 05 61 (Miren), ereite-multicultural@yahoo.es helbidean. Fiantza 100 euro.

antolatu zuen lehenengo Adiskidetasunaren Txapelketa, eta «oso ondo» aterazela azaldu dute. «Parte-hartzaileak oso gustura aritu ziren, etorkinak batez ere, eta gogotsu zeuden aurten berriro ere txapelketa egiteko». 12 talde hartu zuten parte eta Euskal Herriko selekzioa izan zen garailea. Bigarren postuan Andaluzia geratu zen, hirugarrenean Extremadura eta laugarrenean Galizia.

Autobus zerbitzu berezia bihar, kanposantura igo ahal izateko

Garraioa » 30 minuturo izango da hiribusa, 09:00etatik 18:00etara, bai igotzeko, bai eta jeisteko ere.

ERRERAKZIOA

Santu Guztien Eguna izango da bihar, eta, hori dela eta, Tolosako kanposantura igotzeko autobus zerbitzua berezia jarriko du Tolosako Udalak. Hiribusarentzat ordutegi berezia ezarri dute, eta San Blasendagoen ermitatik gora doan bidea udaltzainek kontrolatuko dute.

» ORDUTEGIAK

■ **Ibilbidea.** Hauek izango dira hilerriko den autobusak egingo dituen geldialdiak: Santa Klara, Foruen Etorbidea, Geltoki Plaza, Lurramendiko errotonda, lurre ibiltokia, Paper Eskola, Amartz, San Blas, Kanposantua, Iparragirre, Bizkai kalea, Santa Klara.

■ **Tolosatik kanposantura (Santa Klara geltokia).** Honako ordutegiak izango da kanposantura igo ahal izateko: 09:00; 09:30; 10:00; 10:30; 11:00; 11:30; 12:00; 12:30; 13:00; 15:00; 15:30; 16:00; 16:30; 17:00; 17:30; 18:00.

■ **Kanposantutik Tolosara.** Tolosako kanposantura ondorengo ordutetan igoko da hiribusa, herrira jeitsi ahal izateko: 09:15; 09:45; 10:15; 10:45; 11:15; 11:45; 12:15; 12:45; 13:15; 15:15; 15:45; 16:15; 16:45; 17:15; 17:45; 18:15.

Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 40. Abesbatza-Lehiaketa Urriaren 29tik azaroaren 2ra

Urtero bezala, bere **Gizarte Ekintzen** bitartez, kutxa laguntza eman dio aurten ere **Tolosako Abesbatza-Lehiaketari**, beronen 40. Edizioa babestuz, gure herriaren **musika, kultura eta balioak** zabaltzearen.

40 ABESBATZA LEHIAKETA
Concurso Ciudad de Tolosa
18 de Noviembre del 2008
TOLOSA

gizarte ekintza
kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

txokoa

h

2 sarrera pare

zozketatu ditugu!

Eskubaloiko europar txapelketa

Irabazleak:

- Josetxo Lasarte (Ibarra)
- Aritz Larreta (Amezketza)

AKABA BERA BERA

HC Rostov - Don (Errusia)

LARUNBATA

AZAROAK 1.11.45

Donostiako Bidebieta Kiroldegian

EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA

Adingabe bat atxilotuta, ustez segurtasun zaindari bat erasotzeagatik

Tolosa » Herenegun arratsaldean gertatu zen; zaindariak sudurreko hezurra hautsi eta hortz bat galdu zuen.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzaren agenteek adingabe bat atxilotu zuten herenegun arratsaldean Tolosan, bertako adingabeen zentroko segurtasun zaindariari eraso egitea leporatuta.

Gertakariak herenegun arratsaldean jazo ziren, 16:00ak aldera. Zentroan zegoen adingabe bat zenbait arazo sortzen ari zela jakinarazi zioten Ertzaintzari, eta laguntza eskatu zioten. Bertaratu zirenean, zaindari bati aurpegian ukabilkada bat ematen ikusi zutela adingabea azaldu zuten agenteek.

Segurtasun langilea sudurretik odoletan hasi zen, eta anbulantzia bat bertaratzeko eskatu zuten. Erietxera eraman zuten, eta sudurreko hezurra hautsita zituela eta hortz bat galdu zuela esan zioten.

Ustezko adingabe erasotzaileak Tolosako Ertzaintxera eraman zuten, eta ondoren bere legezko tutoreen esku utzi zuten. Orain, adingabeen fiskaltzaren aurrean azaldu beharko du.

Sagardoa eta txakolina analizatzeko zerbitzu berria

Gizartea » Fraisoroko Ingurugiro Laborategian izango da zerbitzu berria 2009 urteko apiriletik aurrera martxan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jatorrizko Sagardo enboteilatuaren VII. Lehiaketaren diplomen banaketa ekitaldia egin zuten atzo Fraisoroko Ingurugiro Laborategian. Izan ere, bertan laster jarriko dute abian sagardoa eta txakolina analizatzeko zerbitzua.

Orain arte, zerbitzu hau Errioxako Biasteri herriko Ardoaren Etxeak egiten zuen, eta 2009ko apirilera espero dutela Fraisoron ere zeritzu hori ematea azaldu zuten. «Etorkizunean Laborategiaren erroka da sagardo eta txakolina analitiken alorrean akreditazioa eskuratzea 17.025 ISO Norma lortuz», gehitu zuten Fraisoroko ordezkariak. Hala, bertan bildu zirenek, hauda, Jexux Argiñarena, Nekazaritza eta Landa Garapenerako zuzendaria, Jose Antonio Garmendia, Landare alorreko unitateko koordinatzailea, Iñaki Larrañaga, Foru Aldundiko pomologia programaren ardura-



VII. Sagardo Lehiaketaren irabazleak euren diplomekin. HITZA

duna, eta VII. Sagardo Lehiaketaren irabazleak Fraisoroko Ingurugiro Laborategia bisitatzeko aukera izan zuten.

VII. Sagardo Lehiaketa

Bestalde, Nekazaritza eta Landa Garapenerako Zuzendaria den Jexux Argiñarenak banatu zituen aurtengo Sagardo Lehiaketaren irabazleen diplomak. Aurtengo lehiaketan partaide kopururik handiena aurkeztu da, guztira 35 sagardotegi, Gipuzkoako 15 herrietatik: Astigarragatik 9, Hernanitik 8; Usurbildik 4; Urmietatik 3; Donostiatik 2; eta Aduna, Andoain,

Ataun, Irun, Ikaztegieta, Oiartzun, Tolosa, Zarautz eta Zeraindik bana.

Lehenengo saria 2.250 eurokoa izan da eta Astigarragako Irigoyen-Herrero sagardotegiko Iñaki Irigoyentzat izan da; bigarren saria 1.500 eurokoa izan da eta Hernaniko Zelaia sagardotegiko Jose Antonio Gainzeraintzat izan da; hirugarren saria 750 eurokoa izan da eta Hernaniko Altzuetako sagardotegiko Juan Goikoetxerentzat izan da. Lehiaketa honen helburua «sagardo natural botilatuaren kalitatea baloratzea izan da».

Abel Barriola «gustura» etziko partidarako aukeratutako materialarekin

Leitza » Pilota «astunak eta mugitzeko zailak direnak» aukeratu zituzten bai berak, bai eta Retegi aurkariak ere.

ERREDAKZIOA

Barriola eta Retegi izango dira aurrez aurre etzi, Eibarko Astelena pilotalekuan, Lau t'erdiko txapelketako final-laurdenetako partidaren. Bertan erabiliko dituzten piloten aukeraketa atzo egin zuten Astelengan bertan bi pilotariet. Barriola 106,5 eta 106,3 gramokoak aukeratu zituen, eta Retegik, berriro, 106,1 eta 106,3koak.

Leitzarrak gustura dagoela aukeratutako materialarekin azaldu zuten; «biok ere antzeko pilotak aukeratu ditugu; pilota astunak dira, mugitzeko zailak». Hainbat arazo fisiko izan ditu, baina ez direla arazo izango etziko partidarako esan zuten. Bestalde, partida «zaila» izango dela adierazi zuten, eta sakea eta pelotea baliatuko dituela. Julen Retegiri buruz, «pausoak ematen ari da, pixkanaka, baina beti aurrerantz», esan zuten.

Orain urte batzuk Barriolak Retegi aitaren aurka jokatu zuen partida, haren agurrekoan.

EUSKAL TONBOLA

Furgoneta bat nahi? Eta LCD telebistak? GPSak? JOKA EZAZU EUSKAL TONBOLAN!

1€

Nafarria osoko tabernetan salgai



Sorkunde Irazu, Marimi Ugalde eta Josune Aiestaran, atzo Irurako udaletxean egindako prentsurrekoan. I. GARCIA

Barrikotea antolatu dute Udalak eta Ikastolak «eskerrak emateko»

Irura » Azaroaren 8an izango da, herriko frontoian; bazkaria eman behar da eta edaria eta kafea antolatzaileen esku.

IMANOL GARCIA

Kilometroetako egun handia igarota, egin den lan guztia eskertzeko barrikotea antolatu dute Irurako Udalak eta Irurako Ikastolak. Azaroaren 8an egingo da, 14:00etan hasita, herriko frontoian eta ondoren musika izango da. «Ahal den jende guztia etortzea gustatuko litzaiguke», azaldu zuten prentsurrekoan Marimi Ugalde alkateak, Sorkunde Irazu Ikastolako lehendakariak eta Josune Aiestaran Ikastolako zuzendariak.

Barrikotearen antolatzaileek azaldu zutenek, «festa giroan bukatu nahi dugu Kilometroen urtea». Barrikotera norberak janaria eman behar du eta edaria eta kafea Udalak eta Ikastolak jarriko ditu. Barrikotera joan nahi duenak ize-

na eman behar du azaroaren 5a baino lehen. Horretarako Ikastolako telefonora dei daiteke, 943 69 4374 zenbakira.

«Laguntza eske aritu gara urte guztian eta izan dugun lan giro goxo horri jarraipena eman nahi genion, festa giroan, gozatzeko eguna izan dadila», azaldu zuen Irazuk. «Lanean aritu diren guztiak gonbidatuak daude. Pozik gaude erantzun zabala izan dugulako urte guztian zehar eta horregatik antolatu dugu ekitaldi hau, ahal den heinean eskerrak emateko».

Guztiek zabaldua

Egindako lan guztiaren ondoren, «eskerrak ematea besterik ez zai-gu gelditzen», azaldu zuen Ikastolako lehendakariak. «Badakigu ezin dugula guztia eskertu, baina pentsatu dugu hau izan daitekeela modurik egokiena denok ospatzeko». Irazuk gaineratu zuenez, «eginiko talde lana izugarri izan da».

Hain justu, prentsurrekoa egitearen arrazoia irurarre ez ezik,

inguruko herrietatik laguntza ematera joan direnei ere barrikotera joateko gonbitea zabaldu zuten.

Oraindik azken lanak egiten ari dira batzordeetako kideak. Ekonomia batzordekoak, esaterako, lan handia dute kontu guztiak egiteko eta horretan dihardute. «Hasieran batu egiten dituzte guztiak», azaldu zuen Josune Aiestarenek, «baina orain kenketa guztiak etortzen dira».

Ikastolako zuzendariak berriro nabarmendu zuen «oso giro onean» ari direla azken lan hauek burutzen, «afariak-eta eginez». Izan ere, Kilometroetako ekitaldiaren helburu nagusia dirua biltzea bazen ere, beste helburu batzuk ere lortu dira. «Herriko jendea, nola etorri berri asko daudenez, beraien artean ezagutzea ekarri du. Eta horrelako jai erraldoi bat bizitzeko balio izan du herri guztia elkartzeko», azaldu zuen Ugalde alkateak. Aiestarenek gaineratu zuenez, «elkartuta sentitzeko sententzia hori guztiok izan dugun».

Horren harira, azaroaren 8an egingo den barrikotean, Kilometroetan grabatutako bideo bat erakutsiko dute. «Lanean aritu ginenak gauza askotaz ez ginen jabetu», azaldu du Aiestarenek, «eta bideoan egunari buruzko errepa-soa egiten du».

Udalaren aldetik ere Kilometroak herrian egiteak bere egunerokotasunean eragina izan zuen eta orain nabaritzen da egunerokotasunera itzultzen ari dela. Marimi Ugaldek azaldu zuenez, «Udala herriko guztia da eta herrira irekita egon behar da. Bertan lan egiten dutenek ere lagundu zuten Kilometroak aurrera ateratzen».

Lehenengo postuan dagoela jokatu du Lakuntza etziko partida

Villabona » Getxoko Artamoro taldearen aurka jokatu du eta autobusa izango da zaletuak ere jokalariekin joateko.

ERREDAKZIOA

Transportes Lakuntza areto futeboleko taldeak partida berri bat izango du etzi Getxon. Aurreko asteburuan irabazi ondoren, lehenengo postuan dago talde billabonatarra Inter UPV taldeak dituen puntu berdinekin. Etzi Artamoro taldearen aurka jokatu du, 16:00etan. Autobusa antolatu dute partidara joateko, doan, zaletuak jokalariekin joateko. Autobusa 13:00etan aterako da Olaederra kiroldegi ondotik.

Aurreko asteburuan Lakuntzak 3-2 irabazi zion Kanikas Infracoman Barakaldoko taldeari. Hiru puntuak lortu behar zizuten talde billabonatarrek, sailkapenean da-

goen alde kontuan hartuta, baina Barakaldokoak atzean itxi ziren eta ez zen partida erraza izan.

Lakuntza hasi zen nagusitzen, baina Barakaldokoek defentsa ona egiten zuten. 12. minutuan, kornere batean Aranzabek lehenengo gola sartu zuen Lakuntzakoentzat. Etxekoek jokoan nagusi izaten jarraitzen zuten, baina atezain billabonatarrek egindako hutsegite baten ondorioz banakako berdinketa iritsi zen. Baina hurrengo jokaldian Juankarrek aurretik jarri zituen berriro billabonatarrek.

Bigarren zatian, kontraerasora jokatu zuten billabonatarrek, baina Barakaldokoak defentsan finari ziren. Hautsik, ordea, 3-1eko lortu zuen zortea lagun zuela. Emaizta nahiko ondo defendatu zuten billabonatarrek eta bigarrenengo gola azken unean jaso zuten.

Bestalde, Lakuntzak Gabonetako loteria atera du. Eros nahi duenak edozein jokariengana joan daiteke loteria eskatzera.

Pepe Requejoren film laburrak ikusgai gaur gauean Asvinenean

Aduna » 22:30ean hasiko da emanaldia eta Requejoren bederatzia film labur ikusteko aukera izango dute ikus-entzuleek.

ERREDAKZIOA

Asvinenean Egile-Film Laburren Gaua antolatu dute gaurkorako. 22:30ean hasiko da emanaldia eta bertan Pepe Requejoren film laburrak ikusi ahaliko dira. Requejo bera ere Asvinenean izango da eta film labur bakoitzaren aurretik azalpenak emango ditu.

Guztira bederatzia film labur ikusi ahaliko dira: *La hora del recreo*, *Pornografía 93*, *Amador*, *Paralelas*, *Letras*, *palabras y mentiras*, *Ausencias*, *Denboran*, *Lacita* eta *Undia de estos*.

Pepe Requejo Galiziako herritxka txiki batean jaio zen, Toro ize-nekoa, eta gero bere bizitza Urretxun (Gipuzkoa) eman du. Gaztetxotan dagoeneko cowboyen arteko borroken eszenak egiten zuten bere jolasetan.

1993an bere aurrezkiak gastatu zituen bideo kamera bat erosten eta bere lehen lana egiten du, *La hora del recreo*. Gero kolaborazio bat etorriko zen *Amador* egiteko Angel Merinorekin. Baina ondo-



Pepe Requejo. MIRIAM LLUKI/GOIERRIKO HITZA

ren, Requejok zinemarako zuen afizioa albo batera utzi behar izan zuen denboran batez aitatatasuna zela medio.

Ipurtarina, autodidakta, sortzailea da Requejo. Ezin du geldirik egon eta bere imaginaziora iristen zaionari irteera eman behar dio. Produktzioa zein produktzioaren ondokoa, prentsurrekoa... ez dira berretzat. Requejori «arrautza prejituen eta eruloen» filmak egitea gustatzen zaio, hau da, argumentu arruntetakoak, pertsonen bizitza arrunta kontatzen dutenak, egunerokotasuna islatzen dutenak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 0011 edo 634 9194 82 zenbakira.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburutarako zerbitzaria behar dugu. Deitu 605 727 730 zenbakira.

@ **Eztabaida.** HITZ Aren webgunean hainbat eztabaida daude jarrita, berta parte hartzeko. Horietaiko bat ondorengoa da: «Tolosako Corazonistas eliza botatzea onartu du Udalak, bertan etxebizitzak egiteko. Zer iruditzen zaizu? Etxebizitzak egiteko erabiliko al zenuke? Botatzea beharrezkoa da? Etxebizitzak behar dira?». Sartu webgunean eta eman zure iritzia eztabaida honetan zein besteetan ere, edo proposatu ezazu zeuk gai bat tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera idatziz.

www.tolosaldeko-hitza.info



Lidon Sorianok palestinarrek orain 60 urtetatik bizi duten egoeraren inguruan mintzatu zen Ibarrran. R.CALVO

Herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat?

Ibarra » Lidon Sorianok oso gertutik ezagutzen du Palestinaren eguneroko bizitza; herenegun hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean.

REBEKA CALVO

«Herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat», hauxe da orain 60 urte Estatu Judua Palestinan kokatzeko sionismoak aukeratutako esaldia. Esaldi «faltua» Lidon Sorianoren, Komite Internazionalistak eta Palestinarekin Elkartasunako kidearen, hitzetan.

Soriano Ibarrran izan zen herenegun iluntzean Jatorkinek Palestinari eskainitako Kulturarteko Topaketan barruan. Gaia bertatik bertara ezagutzen du; bederatzialdiz egon da Palestinan, lehena 2002an eta azkena oraintxe, abuztuan. Urte hauetan ikusitakoari eta bizitakoari erreparatuta, hala ere, baikor azaldu zen Soriano: «Zaila badirudi ere baikorra naiz oso; Israelek ez luke orain dituen azpiegiturak eta botere militarra AEBen laguntzarik gabe, inperialismoaren laguntzarik gabe, eta orain bizi den krisi garaiarekin, palestinarrek duten eusteko grinarekin eta beste hainbat alderdiri begiratuta, baikor azaltzen naiz. Gizarte israeldarra, gainera, geroz eta banatuago dago; oso kultura desberdinetako jendea bildu dute han eta euren artean ere arazoak areagotzen ari dira».

Palestinaren urterik oparoenertara egin zuen salto Sorianok lurralde aberats honek bizi duen egoera latzaren berri emateko, garaiako argazkiak ere erakutsi zituen, gainera. Guztiz egituratuta-

ko gizartea ikusi zitekeen irudietan; emakumeen unibertsitateko talde argazkiak —aipatu behar da, zentzu honetan, 30. hamarkadetan Irak eta Palestina bezalako lurraldeetan emakumearen presentzia gizarte gaietan oso altua zela—, lurra lantzen zuten nekazariak, umeak kaleetan jolastean... Gaur egungo argazkiak izan zitezkeen. «Garai hartan, XIX. mendeko bukaera eta XX. mendeko lehen urteetan, kultura desberdinak bakean bizi ziren Palestinan, gizartearen %80, gainera, arabiarra zen», argitu zuen.

Israel, Nilotik Eufrates arte

Sionismoak, Theodor Herzl, Haim Weizmann, David Ben Gurion edo Arthur Balfour britainiar ministroa bezalako pertsonaien bidez, beste asmo bat zuen palestinarren lurralderako. «Euren banderari bi marra urdin ikusi daitezke Daviden Izarra inguratuz. Sionismoaren bultzatzaileek bi marra hauek Estatu israeldarren mugak bezala ikusten dituzte; hau da, Nilo eta Eufrates jartzen dituzte euren mugak bezala. Eta hori posible ez balitz Jordania eta Mediterraneoaren arteko lurraldea nahi dute», esan zuen hizlariak.

Sionismoaren buruzagiek palestinarren lurraldera jo aurretik, Argentinako Patagoniara, Egiptoko Sinai eskualdera edota Afrikako erdigunera joatea ere eztabaidatu zuten, baina Palestina izan zen azkenean lurralderik egokiena. Zergatik? «Arrazoi desbedinen artean judutarrak euren tokietatik mugiarazteko leku berezi bat behar zutelako; Jerusalem. Geo-estrategikoki gainera oso leku aproposa da Palestina, baliabide askoko herrialdea da», esan zuen. Era bere-

an, inperialismoari ere euren alde egiteko arrazoiak eman zitoten, esaldi bakar batean bildu daitezkeen: «Ekialdeko mendebaldeko kontrolatzaileak izango gara».

Judutarrak Palestinara

1922. urtean hasi ziren judutarrak era masiboan Palestinara eramaten. Arazoak orduan hasi ziren: «1922an Nazioen Elkartek Britainia Handiari eman zion Palestinako nolabaiteko aginte», esan zuen. Orduan hasi ziren ere palestinarren lurren desjabetze politika sistematiakoak. Arabiarrek, noski, matxinatu egin ziren 1921an, 1929an, 1933an eta 1936an. Orduan hasi zen sionismoa palestinarren bazterketa politika bortitzekin; euren lurralde kendu eta kolonoi ematen zizkieten, lanik ez zieten ematen arabiarrei, gizarteko arlo guztietan baztertzeko zintuzten... «1936. urterako Palestinako biztanleria judua %36 zen, baina okerrena ondoren etorri zen, II. Mundu Gerra amaitzean, holokausto sistemaren ostean Palestinarako bide hartu baitzuen judutar askok», argitu zuen Sorianok.

Britanierrek 1947. urtean eman zuten amore, ezin zuten Palestina gobernatu, eta Nazio Batuek bitan banatu zuten lurraldea: «Biztanle judutarrei lurraldearen %53 eman zitzaion, lur emankorenak barne, biztanleriaren %40 baino gutxiago izan arren. Herri palestinarrei lurraldearen %47 eman zieten, biztanleriaren %60 baino gehiago izan arren».

Israelgo Estatuak 1948ko maiatzaren 14an aldarrikatu zuten, lehenago ehunka herririk gabeko palestinar hondatu zituzten, Deir Yassin kasua da, bertan 250 zibil hil zituzten eta honek beldurra zabaldu zuen gainontzeko herririketan.

Gaur egungo egoera

Egun palestinarren egoera oso latza da: «Batetik Israel barruan bizi diren palestinarrek daude. 1.200.000 bat biztanle dira zerga berdinar ordaintzen dituzte, baina ez dute ezer jasotzen ordaintzen; kaleak zikinak izaten dituzte, argirik gabe, ez dute hezkuntzarako benetako eskubiderik, izan ere, bi hezkuntza bide daude eta arabiarra hizkuntza ofiziala bada ere, ezin dute euren hizkuntza ikasi». Onartuak ez diren herriak ere badude, hau da, «Israelek ez ditu mapetan kokatu ere egiten, zergak ordaintzen dituzte, baina ez dute ezer jasotzen». Gaza eta Zisjordanian daude, bestalde. «Palestinarek ez dute euren bizia kontrolatzen toki hauetan. Ezin dute leku batetik bestera mugitu, *checkpoint*ak direla eta... oso zaila da hemengo eguneroko bizitza, oso oso latza», azpimarratu zuen.

Orain arte «deuseztapen estrategia» argia izan du, hortaz, Israelgo Estatuak palestinarrekiko: desjabetzak, azpiegitura eza, herrialdia zati askotan banatu palestinarren batasuna hausteko, umilazioak eguneroko, atxiloketak, hilketak... Giza-eskubideen urraketa bizi dute palestinarrek eguneroko, Nazio Batuen Erakundea ere kontra azaldu izan da, baina neurriak hartu badituzte ere Israelek ez ditu ebazpen hauek betetzen, eta inork ere ez dio betetzera behartu.

Giza eskubideen azken zapalkuntza harresiaren bidez egin du Israelek: «Mugimendu murrizketak lortzen dute horrela, gizartea umillatzea, eguneroko bizitza egiteko oztipoak jartzea... baina palestinarrek, hala ere, eutsi egiten diote, beti bezala».

Laburrak

Merkatariak karroaren bila joan ahal dira gaur

TOLOSA • Igarondo Elkarrekin ohar baten bidez jakinarazi duenez, Udalak bultzatutako azken promozio erostetarako karroa euren saltokietan izan nahi duten Igarondo eta Alde Zaharra Dendak elkarrekin merkatariek Erretagibelego bulegora (Plaza Zaharra, 7) joan daitezke bila gaur, ostirala, 13:00etatik 13:45era.

Elkartasun Egunerako ekitaldi gehiago

LIZARTZA • Bihar Lizartzan izango den Elkartasun Egunerako egitaraua luzatu dute. Hori horrela, 10:00etan dultzaineroak egongo dira; Takolo pailazoaren emanaldia izango da 12:00etan, ondoren txikienek idiek tiratutako karroan ibili ahal izango direlarik; zarpantzarrik egongo dira 13:00etan; txaranga 14:00etan; eta ziklo jartea 14:30etan. 18:00etan gainera, Txan Magoa eta triktilariak egongo dira. Bazkarirako 350 txartel saldu dituzte oraingoz.

Lapurdirako mendi irteera izango da igandean

IBARRA • Ibarra Haitzetan Raju mendi taldeko eta Bai Euskal Herriari taldeko lagunek mendi irteera antolatuta dute igande honetarako, azaroak 2. Lapurdin ibiliko dira oraingo honetan; Askainetik hasi, Larrun mendira igo eta berriro Askainera bueltatu, bide ezberdin batetatik. Parte hartu nahi duenak Ibarrako plazan egon behar du igandean 08:30ean.

Okupazioaren Aldeko Eguna, bihar

IBARRA • Ibarra Gazte Asanbladak Okupazioaren Aldeko Eguna antolatuta du herriaren biharko. Lehenik eta behin, kontzentrazioa egingo dute 18:30ean Kultur Etxean eta ondoren trikipotea egingo dute plaza inguruan. 20:30ean barrikoteko egingo dute Gaztetxean eta 21:30ean kontzertuak izango dira, hauek ere Gaztetxean. Agressive Combat, Last Strench, Deficiencia Mental eta talde sorpresa izango dira joko duten taldeak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Pausoka Akademia

ERREFORTZU KLASEAK:
(materia guztiak)
Lehen hezkuntza, D.B.H. eta Batxilergoa

HIZKUNTZAK:
Ingelera, Frantsesa, Italiara, Arabiera, Euskara eta Gazteiera atzeritarrentzat

TALDEKAKO ETA BANAKAKO KLASEAK
ANIMA ZAITEZ,
IRAKASLE EZIN HOBEAK DITUGU!

Martin Jose Iraola, 2 behe • TOLOSA
mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48



12°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketa Santa Klara elizan 16:00etan musika Sakratua: Gentlemen (Txetxia), Magdalena (Errusia), Adur (Norvegia), Cantemus (Hungaria), Antioch (AEB) eta Exaudi (Kuba) ahots taldeak; Leidorren 20:00etan talde berak musika profanoa.

Antzerkiak

■ **Oresa.** Bazen behin Clown taldeari ezker, eta giroa alaitzeko, *Eta zergatik ez?* antzerkia ikusiko da Kultur Hamabostaldiaren barne.

Hitzaaldiak

■ **Alegia.** Herria kantuan emanaldiaren proiektzioa izango da Kultur Etxean 18:00etatik 20:00etara.
■ **Tolosa.** Iker Iriondo eta Koldo Zubimendi mendizaleek Korjenskaya (7.015 m) mendiaren igoeraz proiektzioa eskainiko dute Oargi mendi elkartearen, Mendi Hamabostaldiaren barne.

Ikuskizunak

■ **Ibarra.** *Bagdad Rap* dokumentala emango dute Benito Izagirre kultur etxean 19:00etan bere zuzendari Arturo Cisneros eta brigadistekin, eztabaida eta ondoren afari irekia Tolosako Oargi elkartearen.

Irteerak

■ **Asteasu.** Irteera kulturala Ekain-berrira bisita eginez azaroaren 5ean, 15:30ean abiatuta. Argibideak jasotzeko eta izena emateko Kultur Etxera jo daiteke edo 943 69 68 96 zenbakira deitu.
■ **Tolosa.** Azaroaren 23an Cabarceno parkera (Cantabria) irteera antolatuta du Ttentek taldeak, edozeinentzat irekia. Izen-ematea, San Frantzisko parrokian 18:00etatik 19:30era. Informazioa www.ttentek.es webgunean.

Deialdiak

■ **Alegia.** Azaroaren 23an Bigarren Eskuko Azoka izango da lehenengo aldiz, Joseba Llamas apaiz alegiarak lan egiten duen Ipar Potosin (Bolivia) nekazal eskolaren alde. Arropak, liburuak, diskak edota jostailuak ari dira jasotzen.
■ **Anoeta.** Argazki lehiaketa antolatuta dute gaia librearekin. Anoetan errolatuta daudenek edota Anoetako Herri Ikastolako ikasleek parte hartu ahal izango dute, barka nahiz taldean. Udalak zortzi argazki sarituko ditu eta 2009ko egutegian aterako dira.
■ **Tolosa.** Azaroko zinema bonu

salmenta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
■ **Tolosa.** Mendiko bigarren eskuako materialaren merkatu txikia Oargi mendi elkartearen, azaroaren 1etik 9ra, 18:00etatik 21:00etara. Material salgai jarri nahi duenak, Oargin aurkeztu edo 688 698642 telefono zenbakira deitu.
■ **Tolosa.** Azaroaren 8an izango da Engomadora Modernako langile ohien bazkaria izango da Fronton jatetxean. Informazioa eta erreserbak 943 117010 eta 943 674669 telefono zenbakietan.

■ **Tolosa.** Osasun eta Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten herriko talde eta elkarteentzako diru laguntza deialdia. Informazioa, udaletxean eta www.tolosaldeko hitza.net.
■ **Tolosa.** Ibarra Alurr dantza taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du azaroaren 16an Leidor antzokian 19:30ean. Sarrerak salgai Serwikutxan.
■ **Tolosa.** 1968n jaiotakoekin bazkari herrikoia Usabal sagardotegian azaroaren 1ean. 35 euro ingresatu behar dira

21010067210106368467 kontu korrontean. Informazio gehiago 685 755103 telefono zenbakian.
■ **Tolosa.** 1958an jaiotakoek afari herrikoia egingo dute Fronton jatetxean azaroaren 15ean. Izen-ematea, 619 42007 telefonoan (50 euro).

■ **Tolosa.** Isabel Mujikaren olio-lanak eta akuarelak ikusgai daude Errota tabernan; bertan paisajeak eta bodegoiak topa daitezke batez ere.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikoko arbola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunikuzinik.

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Nora!

Gure etxeko sorgin txikiari sei muxu potolo.



Urte askoan!

Enaitz Telletxea Garmendia (Amezketeta) eta Urtzi Murua Telletxea (Abaltzisketa). Gaur 12 eta 2 urte. Zorionak zuen lehengusuen partetik.



Urte askoan!

Iñaki Sarasola (Izaskun) Zure ilobak eta etxeko partetik muxu asko eta ongi pasa. Zorionak osaba!

PURRtx, PORRtx eta MARIHOTx

PANPINAK

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

DVDa (posterra opari) **18€**

Panpina bakoitza (txapa opari) **20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen **902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info** adierazi harpidedun kodea

hitza info

Basatia

ATURAREN GIDALIBURU MAGAZIA

Eskura ezazu berrieekin **Azaroak 1**

berria **3,99€**

berria

hitza